



BERGARAKO UDALTZAINGOA arautzeko *erregelamendua* idatzi AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA bideratzeko iragarkia

39/2015 Legeak –urriaren 1ekoak, Administrazioen Publikoen Prozedura Erkideari buruzkoak– berrikuntzak ezarri ditu Administrazio publikoen legegintza-ekimena eta erregelamendua egiterakoan; besteak beste, herritarren iritzia eta etorkizuneko arauak ustez ukitu ahal dituen antolakunde ordezkagarrienen iritzia jasotzeko beharra.

39/2015 Legeak –urriaren 1ekoak, Administrazioen Publikoen Prozedura Erkideari buruzkoak– bere 133 artikuluan hau xedatzen du:

“1.- Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*
- b) Arau hori onestea, beharrezko eta egoki den.*
- c) Arauaren helburuak.*
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaille eta ez-erregulatzailleak.”*

Bergarako Udalaren asmoa da, indarrean dagoen legediarekin bat etorritik, Bergarako Udaleko Udaltzaingoa arautuko duten jarduketa- eta funtzionamendu-irizpideak ezarriko dituen ordenantza onartzea

39/2015 Legeak ezartzen duen prozedura betetzeko, Bergarako Udalak erabaki du, BERGARAKO UDALTZAINGOAREN jarduketa eta funtzionamendua arautzeko ERREGELAMENDUA onartu aurretik, aurretiazko kontsulta publikoa burutzea.

Beraz, herritarrek, erakundeek eta elkarteek hala iritzi gero, parte hartu ahal izango dute ekarpenak aurkeztuz **2018ko maiatzaren 17 arte**, bi bide hauen bidez:

- Posta elektronikoaren postontzi honen bidez: idezkaritza@bergara.eus .
- Udalaren Erregistro orokorrean aurkeztutako iradokizunen bidez (San Martin Agirre plaza 1).

EKIMENAREN BITARTEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK

Bergarako Udaleko Udaltzaingoa arautuko duten jarduketa- eta funtzionamendu-irizpideak ezartzea, indarrean dagoen legediarekin bat etorritik, eta Euskadiko Udaltzaingoen antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparru arauak ezartzen dituen 58/2015 Dekretuaren Lehen Xedapen iragankorrean jasotakoa betetzea.

ORDENANTZA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA

Erregelamendua Euskadiko Udaltzaingoen antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparru arauak ezartzen dituen 58/2015 Dekretuak jasotakoa betetzea premiazkoa delako egiten da.

ORDENANTZAREN HELBURUAK

Euskadiko Udaltzaingoen antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparru arauak ezartzen dituen 58/2015 Dekretuak jasotakori jarraituz Bergarako udaltzaingoaren antolamenduari eta funtzionamenduari dagozkion arauak onartzea, bertan jasoko direlarik udaltzaingoaren araubide juridikoa, dituen egitekoak, jarduteko oinarritzko printzipioak, egitura organikoa eta beste hainbat araubide.

IZAN LITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ-ERREGULATZAILEAK

Bergarako Udaltzaingoaren Antolamenduaren eta Funtzionamenduaren Erregelamendu hau proposatzen da Euskadiko udaltzaingoen antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparru arauak ezartzen dituen 58/2015 Dekretuaren Lehen Xedapen Iragankorrean aurreikusitakoa garatzeko, bertan honako hau dago jasota:

- 1.– Esparru-arau hauek indarra hartu eta hiru urteko epean, udaltzaingoari buruzko araudia duten udalek esparru-arau hauetara egokitu beharko dute araudi hori.
- 2.– Esparru-arau hauek indarra hartzen dutenean udaltzaingoari buruzko araudi propiorik ez duten udalek ere hiru urteko epea izango dute beren araudia onartzeko.

Argitaratze-data: 2018/05/04